

EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023IPLE0011
Eguna: 2023-07-04
Ordua: 19:00 – 19:23
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

1. 2023ko ekainaren 17ko eta 22ko aktak onartzea
2. Udal inbentarioaren egiaztapena.
3. Udal talde politikoen eraketa.
4. Bozeramaile batzordearen sorrera eta osaketa.
5. Udal osoko bilkuren aldizkakotasuna
6. Batzorde informatibo iraunkorren sorrera eta osaketa
7. Kontratazio-mahai iraunkorren sorrera eta osaketa
8. Udal osoko bilkuraren eskumena den eta organo kolegiatuetan parte hartuko duten ordezkarien izendapena
9. Alkateari eta tokiko gobernu batzarrari eskumenak eskuordetzea
10. Politiko eta aldi baterako langileen dedikazio eta ordainketen erregimena
11. Astigarragako Udalaren Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Plana, 2022ko martxoaren 29ko osoko bilkuran onartua, berrestea.
12. Alkatetzako ebazpenak jakinaraztea: udal talde politikoen lokalen banaketa, tokiko gobernu batzarra eratzea eta alkatea ordeak izendatzea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

13. Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2023ko ekainaren 17ko eta 22ko aktak onartzea

Ekainaren 17ko akta akta **aho batez onartu** da

Ekainaren 22ko aktari dagokionez, Ainara, Aitor, Andoni, Estibaliz, Beatriz, Maria eta Manex zinegotziak abstenitu egin dira, aurreko bilkurara bertaratu ez zirelako. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, **akta onartu** egin da.

2. Udal inbentarioaren egiaztapena.

Alkateak azaldu du legeak behartzen duela korporazioa aldatzen den bakoitzean udal inbentarioa egiaztatzea, eta horretarako udal-idazkariak txosten bat egin duela. Jarraian proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- ONARTZEA ordezeko udal-idazkariak, 2023ko ekainaren 14an, udal ondasunen inbentarioaren egiaztapenaren inguruan egindako txostena.

Jarraian bozkatzera ekon zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

3. Udal talde politikoen eraketa.

Alkateak azaldu du 3 talde osatu direla: Astigarragako EH BILDU (Xabier Urdangarin, Ainara Vazquez, Naroa del Orden, Joseba Ilari Etxeberria, Aitor Güemes, Esti Neira, Andoni Gartzia eta Bea Lasagabaster), Astigarragako EAJ-PNV (Maria Otaegi, Iñigo Touzani, Manex Aldalur eta Olaia Pastoriza) eta Udal-talde Euskal Sozialista (Patxi Suarez).

Halaber, jakinarazi du talde bakoitzaren bozeramaileak nortzuk izango diren, baita horien ordezekoak ere.

4. Bozeramaile batzordearen sorrera eta osaketa.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAren eraketa ONARTZEA.

Bigarrena.- Bozeramaileen batzorderako kide hauek izendatzea

- Lehendakaria: Xabier Urdangarin Lasa

- Bokalak:

Ainara Vazquez, eta bere ordezkoa, Naroa del Orden
Maria Otaegi, eta bere ordezkoa, Manex Aldalur.
Patxi Suarez Perez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Hirugarrena.- Bozeramileen batzordearen eginkizun orokorra, udal-talde guztien kontsulta behar duten gaiak bideratzea eta, gai orokorrak izan eta udalaren interesa duten gaiak aztertzea, baldin eta gaiok ezin badira udal antolaketaren beste arlo batzuetan bildu.

Jarraian bozkatzera ekoiz zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

5. Udal osoko bilkuren aldizkakotasuna.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin

Bakarra.- Osoko Bilkuraren ohiko bilerak egitea hileko azken asteartean, 19:00etan, uztaila eta abenduan izan ezik, jaien eta gabonetako oporren arabera moldatu ahal izango baita. Abuztuan, berriz, ez da plenorik izango.

Jarraian adierazi du asmoa dela uztailako osoko bilkura 18an egitea.

Patxi zinegotziak hitza hartu eta adierazi du 19:00ak berandu iruditzen zaiola batzordeak egiteko, Maria zinegotziarentzat, berriz, ordu hori aproposa da lana egiten duenarentzat, eta bere taldekideei ongi datorkiela adierazi du.

Ondoren bozkatzera ekoiz zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

6. Batzorde informatibo iraunkorren sorrera eta osaketa.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Izaera iraunkorreko Batzorde Informatiboak sortzea ONARTZEA, 7/1985 Legearen 20.1.c artikulua eta 2468/1986 Errege Dekretuaren 123tik 127ra eta 134tik 138ra bitarteko artikuluen funtzioak betetzeko.

Bigarrena.- Batzorde Informatibo bakoitzak 5 kide izango ditu, 3 EHBildu alderdikoak, 1 EAJ-PNV alderdikoak eta beste 1 Udal-talde Sozialita taldekokoak.

Hirugarrena.- Irizpenak bertaratuen gehiengo arruntarekin onartuko dira, ezinezkoa izanik boto haztatua kontuan hartzea.

Laugarrena.- Izaera iraunkorreko Batzorde Informatiboak, izen eta osaketa honekin ONARTZEA:

Batzordearen izena	Lehendakaria	Kideak
Ogasuna eta ondarea	Andoni Gartzia	Xabier Urdangarin Ainara Vazquez Maria Otaegi Patxi Suarez



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna	Andoni Gartzia	Xabier Urdangarin Esti Neira Maria Otaegi Patxi Suarez
Obrak eta zerbitzuak	Aitor Güemes	Joseba Ilari Etxeberria Xabier Urdangarin Manex Aldalur Patxi Suarez
Jasangarritasun energetikorako batzordea	Aitor Güemes	Andoni Gartzia Xabier Urdangarin Manex Aldalur Patxi Suarez
Kudeaketa, berrikuntza eta pertsonala	Xabier Urdangarin	Esti Neira Andoni Gartzia Olaia Pastoriza Patxi Suarez
Gizarte zerbitzuak eta adineko pertsonak	Esti Neira	Joseba Ilari Etxeberria Naroa del Orden Olaia Pastoriza Patxi Suarez
Tokiko garapena	Xabier Urdangarin	Ainara Vazquez Esti Neira Maria Otaegi Patxi Suarez
Berdintasuna eta elkarbizitza	Ainara Vazquez	Esti Neira Bea Lasagabaster Olaia Pastoriza Patxi Suarez
Partaidetza	Naroa del Orden	Xabier Urdangarin Bea Lasagabaster Manex Aldalur Patxi Suarez
Euskara eta hezkuntza	Ainara Vazquez	Xabier Urdangarin Bea Lasagabaster Maria Otaegi Patxi Suarez
Kultura eta jaiak	Naroa del Orden	Ainara Vazquez Bea Lasagabaster Iñigo Touzani Patxi Suarez
Kirolak, jarduera fisikoa eta gazteak	Naroa del Orden	Ainara Vazquez Andoni Gartzia Iñigo Touzani Patxi Suarez



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Herri segurtasuna eta trafikoa	Joseba Ilari Etxeberria	Xabier Urdangarin Esti Neira Iñigo Touzani Patxi Suarez
--------------------------------	-------------------------	--

Bosgarrena.- ZEHAZTEA batzorde informatiboek ohiko bilerak hileko bigarren edo hirugarren astean egingo dituztela.

Jarraian alkateak adierazi du asmoa dela uztailako batzordeak 11ko astean egitea. Ondoren, bozkatzera ekon zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

7. Kontratazio-mahai iraunkorraren sorrera eta osaketa

Alkateak azaldu du kontratazio-mahaiak legez osaera teknikoa duela, eta korporazio kide bakarrak parte hartu arren, ohitura dela oposizioko bozeramaileei deialdiak bidaltzea, eta parte ere hartu dezaketela, baina botorik gabe. Ondoren, proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Udal honetako edozein kontratazio-organoak legealdi honetan izapidetzen dituen espediente kontratazio guztietarako kontratazio mahaia sortzea.

Bigarrena.- Astigarragako Udaleko kontratazio mahairako pertsona hauek izendatzea:

- Lehendakaria: Xabier Urdangarin, eta bere ordezkoa, Esti Neira.

- Bokalak:

Kontxi Urdampilleta Santamaria (udal-idazkaria)

Amaia Bengoetxea Arrozpide (udal kontu-hartzailea)

- Idazkaria: idazkaritzako administraria.

Jarraian bozkatzera ekon zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

8. Udal osoko bilkuraren eskumena den eta organo kolegiatuetan parte hartuko duten ordezkarien izendapena

Alkateak proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena: Udalak parte hartzen duen duen duen administrazio, enpresa publiko eta erakunde ezberdinetarako ondorengo ordezkariak izendatzea:

ERAKUNDEA	ORDEZKARI TITULARRA	BERE ORDEZKOA
AÑARBEEKO MANKOMUNITATEA	Aitor Güemes	Joseba Ilari Etxeberria
BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEKO BATZAR OROKORRA	Xabier Urdangarin Ainara Vazquez	Andoni Gartzia Naroa del orden



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEKO GOBERNU BATZORDEA	Xabier Urdangarin	Ainara Vazquez
BETERRI BURUNTZAKO KUDEAKETA- BATZORDEA	Xabier Urdangarin Ainara Vazquez	Andoni Gartzia Naroa del orden
SAN MARKOS MANKOMUNITATEA	Aitor Güemes Xabier Urdangarin	Ainara Vazquez Naroa del orden
UEMA MANKOMUNITATEA	Xabier Urdangarin Ainara Vazquez Andoni Gartzia Maria Otaegi	Naroa del Orden Esti Neira Joseba Ilari Etxeberria Manex Aldalur
ASTIGARRAGA LANTZEN	Xabier Urdangarin (lehendakaria) Andoni Gartzia (kide+idazkaria) Esti Neira Maria Otaegi Patxi Suarez	-- -- -- -- --
GARBITANIA	Xabier Urdangarin	Andoni Gartzia
SAGARDUN PARTZUERGOA	Xabier Urdangarin	Ainara Vazquez
BURUNTZALDEKO TAXI BATZORDEA	Xabier Urdangarin	Joseba Ilari Etxeberria
BEHEMENDI	Aitor Güemes	Joseba Ilari Etxeberria
ELKARKIDETZA	Xabier Urdangarin	Esti Neira
ESKOLA KONTSEILUA	Ainara Vazquez	Xabier Urdangarin
ESKUALDEKO BATZORDE SOZIOSANITARIOKO ORDEZKARIA	Xabier Urdangarin	----
EUDEL	Xabier Urdangarin	Ainara Vazquez
EUSKAL FONDOA	Esti Neira	Joseba Ilari Etxeberria
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA	Ainara Vazquez	Xabier Urdangarin
UDALBILTZA	Andoni Gartzia	Xabier Urdangarin

Bigarrena.- Sagardun Partzuergoaren Estatutuen 7. artikuluari jarraikiz, Sagardun partzuegoko idazkari bezala izendatzea Leire Alkorta (partzuegoko langilea), eta bere ordezkari, Kontxi Urdanpilleta (udal idazkaria).

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri aipatu erakundeei ematea eta, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekon zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

9. Alkateari eta tokiko gobernu batzarrari eskumenak eskuordetzea



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Alkateak azaldu du udalaren kudeaketa eragikorragoa eta azkarragoa izateko udal osoko eskumen batzuk tokikoari eta alkateari eskuordetzea egoki ikusten dutela, eta proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenena. - Udal osoko bilkurarenak diren eskumen hauek alkateari eskuordetzea:

- 1.- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen araututako kontratuen espedienteak irekitzea.*
- 2.- *Kontratuen aldaketa espedienteak irekitzea eta izapidetzea.*
- 3.- *Kontratu publikoetan zigorrak ezartzeko espedienteak hasi, izapidetu eta ebaztea.*
- 4.- *Udal ondasunak eskuratzeko, besterentzeko edo erabiltzeko espedienteak irekitzea eta izapidetzea.*
- 5.- *Udal ondasunen ikerketa espedienteak irekitzea eta izapidetzea.*
- 6.- *Udal ondasunak berreskuratzeko espedienteak irekitzea, izapidetzea eta ebaztea.*

Bigarrena. - Udal osoko bilkurarenak diren eskumen hauek tokiko gobernu batzordeari eskuordetzea:

- 1.- *Administrazio-agirietan aurreikusitako kontratua aldatzeko espedienteak ebaztea, bai eta aurreikusita ez daudenak ere, baldin eta esleipen-zenbatekoa % 10 baino gehiago handitzen ez badute.*
- 2.- *Hornidura- eta zerbitzu-kontratuen luzapenak onartzea.*
- 3.- *50/1999 Legea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko, abenduaren 23koa, 50/1999 Legea, Legean arau-hauste administratibo larritzat tipifikatutako zehapen-espedienteak ebaztea.*
- 4.- *Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legean arau-hauste administratibo larritzat tipifikatutako zehapen-espedienteak ebaztea.*
- 5.- *Animalien edukitza eta babesari buruzko udal-ordenantzan arau-hauste administratibo larritzat tipifikatutako zehapen-espedienteak ebaztea.*

Hirugarrena. - Akordioa GAOn argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

10. Politiko eta aldi baterako langileen dedikazio eta ordainketen erregimena

Alkateak proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

1.- Lanaldi osoko liberazioa.

Alkateak bere kargua denbora osoko lanaldian egingo du, eta hileko ordainsari gordina 4.293,22 eurokoa izango da (urteko 60.105,08 euroko ordainsari gordina).

Ordainketa hau dagozkion zerga betebeharrei lotua egongo da eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko da.

2.- Lanaldi murriztuko liberazioak:

2.1. Udal-gobernu taldeko zinegotziak: lanaldi murriztuko liberazioak

Ainara Vazquez Martinez zinegotzia izendatzea –2023ko irailaren 1etik aurrera– euskara, hezkuntza,



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

berdintasuna eta elkarbizitzako arduradun, %50eko lanaldi murriztuan. Hileko ordainsari gordina 1.354,84 eurokoa izango da (urteko 18.925,76 euroko ordainsari gordina).

Naroa del Orden Otero zinegotzia izendatzea kultura, jaiak, kirola, gazteak eta partaidetzako arduradun, %50eko lanaldi murriztuan. Hileko ordainsari gordina 1.354,84 eurokoa izango da (urteko 18.925,76 euroko ordainsari gordina).

Esti Neira Martinez zinegotzia izendatzea, Alkatetzako idazkari eta komunikazio zerbitzuko ardura %50eko lanaldi murriztuan. Hileko ordainsari gordina 1.354,84 eurokoa izango da (urteko 18.925,76 euroko ordainsari gordina).

2.2. Oposizioko kide den zinegotzi baten liberazioa lanaldi murriztuan.

Maria Otaegi Velez – EAJ-PNV taldearen bozeramailea – liberatzea, %40ko lanaldi murriztuan. Hileko ordainsari gordina 1.081,47 eurokoa izango da (urteko 15.140,58 euroko ordainsari gordina).

Ordainketa guztiak dagozkion zerga betebeharrei lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

2.3. Behin behineko pertsonala

Ez da aurreikusten.

3.- Bertaratu izanagatiko ordainketak:

Zenbateko hauek proposatzen dira:

- Osoko bilkurara joategatik: 60 €.
- Tokiko batzarrera joategatik: 60 €.
- Batzorde informatiboetara joategatik: 60 euro lehendakariarentzat eta 20 € gainerako zinegotzientzat.

Alkateari eta lanaldia murriztua onartu zaien zinegotziei udal osoko bilkurara, tokiko gobernu batzordera eta batzorde informatzaileetara joategatik ez zaie ordainketarik egingo.

Ordainketa hauek dagozkion PFEZ zergaren atxikipenari lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

4.- Talde politikoaren ordainsariak

Zinegotzi bakoitzeko 200 €/hileko eta talde bakoitzeko 300 €/hileko ordainduko dira.

Ordainketa hauek Udal honetako gastu aurrekontuaren 4. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

Patxi zinegotziak adierazi du proposamenarekin ados dagoela, baina galdetu du goiz edo arratsalde berean batzorde bat baino gehiago egonez gero, bakoitzarengatik ordaintzen den, eta horrela dela argitu zaio.

Jarraian bozkatzera ekon zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

11.Astigarragako Udalaren Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Plana, 2022ko



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

martxoaren 29ko osoko bilkuran onartua, berrestea.

Alkateak azaldu du 2016 udalak kode etiko bat onartu zuela, eta 2022an, berriz, Iruzuraren plana. Azken hori onartzearen beharra azaldu du, eta dokumentuaren nondik norakoak, eta proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- BERRESTEA 2022ko martxoaren 29ko osoko bilkuran onartutako Astigarragako Udalaren Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Plana.

Jarraian bozkatzera ekon zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

12. Alkatezako ebazpenak jakinaraztea: udal talde politikoaren lokalen banaketa, tokiko gobernu batzarra eratzea eta alkatea ordeak izendatzea.

Alkateak udal berria eratu denetik ebatzitako antolamentu-dekretu hauen berri eman du alkateak:

- 769/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, udal taldeen lokal banaketari buruzkoa.
- 788/2023 DEKRETUA, ekainaren 29koa, Tokiko Gobernu Batzarra eratzea eta alkatearen funtzioak delegatzeari buruzkoa.

Alkateak 18 eskumen delegatu dizkio tokikoari, eta kide hauek izendatu ditu:

- Lehendakaria: Xabier Urdangarin

- Bokalak: Ainara Vazquez Martínez, Naroa Del Orden Otero, María Otaegi Velez eta Patxi Suarez Perez

- 789/2023DEKRETUA, ekainaren 29koa, alkateordesk izendatzeari buruzkoa: .

AINARA VAZQUEZ MARTINEZ lehenengo alkateordea

NAROA DEL ORDEN OTERO bigarren alkateordea.

MARIA OTAEGI VELEZ hirugarren alkateordea.

PATXI SUAREZ PEREZ laugarren alkateorde izendatzea.

13. Informazio, galdera eta eskariak.

Ez ohiko bilera izan arren, alkateak norbaitek galderarik edota eskaerarik duen galdetu du. Bestetik, Santio jaietako soka-dantza dela-eta, galdetu da zein zinegotzi hartuko duten parte, eta azaldu da Astigar elkarteak ensegua egingo dituela, eta horren berri emango zaiela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko uztailaren 4an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria